

“Ikastetxeek inplikatu egin behar dute udan kontziliazioa lortzeko”

Valentín
Martínez
Otero

Psikologian eta
Pedagogian doktorea eta
Madrilgo Complutense
Unibertsitateko irakaslea
Hezkuntza Fakultatean

6,6 milioi eskola-ume baino gehiago prest daude ikasgelak utzi eta udaz gozatzeko. Zoritxarrez, lana eta familia bateratzeko arazoek ez dute oporrik hartzen. Nola antolatu? Valentín Martínez-Otero psikologoa, pedagogoa eta irakaslea da Madrilgo Complutense Unibertsitateko Hezkuntza Fakultatean, eta udan lana eta familia bateratzeko errezetak oinarritzko osagai hau behar duela azpimarratzen du: “Administrazioen eta eskola erakundeen laguntza”. Aditu honek haurren hezkuntzari eta psikologiari lotutako hainbat eskuliburu argitaratu ditu (besteak beste, *10 criterios para mejorar el rendimiento escolar*), eta udan lana eta familia bateratzeko zereginak Espainian duen egoeraren erradiografia bat egin digu.

Udan lana eta familia bateratzea are zailagoa al da? Bai. Haurrek ez dute eskolara joan beharrik eta gurasoen ardura da une orotan haiei arreta eskaintzea. Udak gatazkak eragiten ditu familia askorentzat, kezka eta zailtasun gehiago.

Udan haurrentzat egiten diren proposamenik gehienak pribatuak eta garestiak dira. Administrazioek gizarte hezitzaileak eta animatzaileak eduki behar lituzkete, udan zerbitzu publiko bat eskain dezaten. Zerbitzu hori hezigarria izan daiteke, baina baita ludikoa ere. Administrazioek elkarrekin harremanetan egoteko eremu bat jarri behar dute haurren esku, non segurtasunez eskainiko dieten arreta.

Ez al dago arriskurik haurrek ikasurte osoan izaten duten egutegi estresatzaile bera errepikatzeko udan ere? Haurrek ez dute aspertu behar udan eta gomendioa da jarduerak eginez probetxu atera diezaiotela

denborari, adibidez hizkuntzak ikasiz, kirola eginez edo udalekuetara joanez. Horrek ez du bazterten ez atsedena eta ez jostaketa ere. Haurraren adina kontuan hartzea da formula, haren interesak eta iritziak.

Baina sormena neurtzen duten probek diote uste baino garrantzitsua izan daitekeela aspertzea. Arazoa da gaur egun dena hain dagoela prestatua, hain egituratua eta lotua, ezen askotan haurrei ez diegu uzten mugitzeko tarterik. Neurriko asperdurak ez du deus txarrik, baina ez da komeni haurra bere kasara uztea, zereginik gabe eta zertan ibili ez da kiela. Dena da neurri kontua. Udan, lekua utzi behar zaio jolasari eta ongi pasatzeari, haurrak modua izan dezan sormena askatzeko. Egokiena da udari probetxua ateratzeko eskaintza bat proposatzea eta, zergatik ez, eskolako ikasgai batzuk sendotzeko ere erabiltzea.

Haurrek eskolako lanak egin behar al dituzte udan? Gero eta irakaste gehiagok egiten du kontrako apustua. Udako eskolako lanek zentzu pedagogiko bati erantzun behar diote, ez dira haurrentzako zigor bat izan behar, inolaz ere. Helburu hezigarria duten etxeko lanak onak izan daitezke. Uda oso luzea da eskolan, baina ikaskuntzak sendotzeko erabil dezakegu, haurrari jolaserako eta atsedena hartzeko denbora kendu gabe.

Espainiako haurren uda luzeegia dela iruditzen al zaizu, Guraso Elkarrekin Espainiako Konfederazioak dioen bezala? Ez. Udako oporrek, ongi aprobetxatuta, aukera ematen dute haurren bizitzan oso baliagarriak diren atalei arreta eskaintzeko. Udak erraztu egiten du haurren atsedena, sendotu egiten ditu harremanak familiarekin eta lagunekin, eta haurren bilakaera

intelektuala, fisikoa eta emozionala laguntzen duten jarduerak egiteko garaia da.

CISen barometroaren arabera, Espainiako herritarren %45i zaila gertatzen zaie etxeko zereginak egitea, eta hirutik batek egunean hiru ordu baino gutxiago ditu libre. Egoera horretan, zein da zure osagai sekretua udan lana eta familia bateratzeko dituen errezeta on bat lortzeko? Ikastetxeek esku hartu behar dute udan egingarria izan dadin lana eta familia bateratzeko zeregina, errefortzuko profesionalekin eta aisialdiko eta formazioko aukerekin. Horixe da osagaia oporrek familientzat zama astuna izateari utz diezaioten.

Zer-nolako proposamenak egiten dituzu udan lana eta familia bateratzeko? Naturarekin harremanetan egoteko aukera eskaintzen duten udalekuak interesgarriak dira haurrentzat, gainera, lagunak egiteko eta gizarte harremanak sendotzeko aukera ematen diete. Haurrekin bidaiak egitea ere oso gomendagarria da. Baina ez dezakegu ahaztu familia askok arazo ekonomikoak dituela. Horregatik, ikastetxeek inplikatu egin behar dute: bidaiak eta udalekuak taldean egitea merkeagoa da.

Udan lana eta familia bateratzea zer da, aukera bat edo ezinezko kontua? Udan bateratu daitezke lana eta familia. Hala ere, familia askorentzat ezinezkoa ez, baina zaila izaten da. Horregatik, administrazioek eta eskola erakundeek inplikatu egin behar dute lana eta familia bateratzeko zailtasunak dituztenei laguntzeko.

➔ www.consumer.es

